

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2009KO UZTAILAREN 7KOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, AGINDUZ ARGITARA DAITEZELA HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO KURRIKULUAREN LAUGARREN MAILA EGIAZTATZEKO 2009 URTEKO DEIALDI BEREZIKO BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK.


HABEren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, hain zuzen 2009ko martxoaren 10koaz, egin zen 2009 urteko azterketaren deialdi berezia, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan ezarritako laugarren mailaren egiaztatzea bideratuz. Behin egiaztatzeko probak egin ondoren, eta aipatutako ebazpenaren 9. artikularen arabera, bidezko da probaren behin-behineko emaitzak argitaratzea. Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Agindua ematea argitara daitezen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren laugarren maila egiaztatzeko azterketaren behin-behineko emaitzak.

BIGARRENA.- Interesatuak aukera dute uztailaren 8tik uztailaren 13ra, biak barne, erreklamazioak egiteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztuko zaizkio HABEren zuzendari nagusiari. Epe hori igaro ondoren, behin betiko bihurtuko dira erreklamaziorik aurkeztu ez duten azterketarien emaitzak.

Donostian, 2009ko uztailaren 7an



Eugenio Mujika Galparsoro

HABEREN ZUZENDARI NAGUSIA